**Erabakia, 2026ko uztailaren 7koa, EHUko Arabako Campuseko Errektoreordetzarena, "Bizikletaz, adinik ez" programan parte hartuz gero, graduko ikasleek kredituak lortu ahal izango dituztela aditzera ematen duena. Programa Gasteizko Udalak antolatu du, Arabako Campuseko errektoreordetzarekin batera.**

EHUko Arabako Campuseko Errektoreordetzak Vitoria-Gasteizko udalarekin batera **"Bizikletaz, adinik ez"** izeneko programa antolatu du Unibertsitateko gazteek trizikloz egiten diren paseoetan gidari izanez Gasteizko adinekoekin denbora eta esperientziak partekatzeko aukera eskaintzeko helburuarekin, **2026-2027 denboraldian zehar.**

Era honetako programan parte hartzea baliagarria da HAUTAZKO KREDITUAK lortzeko graduren bat ikasten ari diren ikasleentzat (Unibertsitateko irakaskuntza ofizialen antolamendua ezartzen dituen urriaren 29ko 1393/2007 errege-dekretuak araututako ikasketa-planak, 2007ko urriaren 30eko 260. zk.ko EBO).

Jarraian, graduetan aplikagarriak diren araudiak aipatzen dira:

> Graduko ikasketetan kredituak transferitu eta onartzeko 66. artikuluari jarraiki,(EHUko Gobernu Kontseiluak 2012ko maiatzaren 16an onartuta eta EHAAn 2012ko ekinaren 19an argitaratua), posible da unibertsitateko errektoreordetzek antolatutako prestakuntzarako kultur ekintzengatik (ikastaro, mintegi, kongresu eta halakoak), **HAUTAZKO KREDITUAK** amortizatzea.

Jarduera hauetarako, 25 orduko kreditu bateko baliokidetza ezarri da.

Errektoreordetzek antolatutako ekintzengatik unibertsitateko ikasle guztiei aitortuko zaie kredituak amortizatzeko aukera, alde batera utzita zein titulazioetakoak diren , plan zaharrekoak , zein graduetakoak.

**Resolución de 7 de julio de 2026, del Vicerrectorado del Campus de Álava de la EHU, por la que se dá publicidad al hecho de que la participación en el programa "En Bici Sin Edad" organizado por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y por el Vicerrectorado del Campus de Álava, será válido para la obtención de créditos para alumnado de Grado.**

El Vicerrectorado del Campus de Álava de la EHU y el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz han organizado el programa denominado **"En Bici Sin Edad"** con el fin de ofrecer la oportunidad de que jóvenes universitarios/as compartan tiempo y experiencias con las personas mayores de Vitoria-Gasteiz siendo conductoras/es en los paseos en triciclo por **Vitoria-Gasteiz durante la temporada 2026-2027.**

La participación en este programa es válida para la obtención de CRÉDITOS OPTATIVOS por parte del alumnado que curse algún Grado (planes de estudio regulados por el Real Decreto 1393/2007, de 29 de octubre, por el que se establece la ordenación de las enseñanzas universitarias oficiales, BOE nº 260 de 30 de octubre de 2007).

A continuación, se indican las normativas aplicables a los estudios de Grados:

> En virtud del artículo 66 de la Normativa sobre reconocimiento y transferencia de créditos en los estudios de Grado, aprobada por el Consejo de Gobierno de la EHU el 16 de mayo de 2012 y, publicada (BOPV 19/06/2012) es posible amortizar **CRÉDITOS OPTATIVOS** por actividades culturales formativas (cursos, seminarios, congresos, etc.), organizadas por los diferentes vicerrectorados de la universidad.

Para estas actividades se establece la equivalencia de 1 crédito por cada 25 horas.

Finalmente, las actividades organizadas por los Vicerrectorados tienen reconocimiento para amortizar créditos para todos los alumnos y alumnas de la Universidad, con independencia de la titulación en la que estuvieren matriculados.

Aipatutako guztia kontuan hartuta,

Por todo ello,

**EBATZI DUT**

**RESUELVO:**

***Lehenengoa*.-** Jakinaraztea **EHUko Arabako Campuseko Errektoreordetzak Vitoria-Gasteizko udalarekin** batera antolatutako **"Bizikletaz, adinik ez"** izeneko programan parte hartzea baliagarri izango dela hautazko kredituak lortzeko graduko ikasleentzat.

Programan parte-hartzaileen gutxieneko arduraldirik ez da aurreikusten, pertsona parte-hartzailearen ordu prestasunaren araberakoa izango da.

***Primero*.-** Dar a conocer que la participación en el programa **"En Bici Sin Edad"** organizada conjuntamente por **el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz** y por **el Vicerrectorado del Campus de Álava de la EHU**, será válida para la obtención de créditos optativos por parte del alumnado de grado.

No se estima dedicación mínima de los participantes, dependerá de la disponibilidad de horas de la persona colaboradora.

***Bigarrena*.-** Antolatzaileek egingo diren jardueretan parte hartuko duten ikasleen jarraipena egingo dute eta ikasleei ziurtagiri bat emango diete. Ziurtagiri bana emango diete, honakoak argi adieraziz: egin diren jarduerak, berauei dagokien **ordu kopurua**, nork antolatu dituen, noiz eta non izan diren, **eta ebazpen honen data eta organo egilea.**

***Segundo*.-** Los organizadores establecerán el seguimiento del alumnado participante en las actividades que se desarrollen y entregarán a los alumnos y alumnas un certificado con la indicación expresa de: las actividades realizadas, **horas correspondientes a las mismas**, quién las ha organizado, fechas de las mismas, lugar de celebración, **y fecha y órgano de emisión de la presente resolución**

***Hirugarrena*.-** Ikasleek EHUko Ikasketen Gestiorako Araudiko 63. artikuluan adierazitako epeetan aurkeztuko dute ziurtagiria matrikulatuta dauden ikastegiko idazkaritzan. Prezio publikoak (tasak) ordaindu ondoren espedientean sartuko dira.

***Tercero*.-** Con este certificado los alumnos y alumnas se presentarán, en los plazos señalados en el artículo 63 de la citada Normativa de Gestión Académica de la EHU, en la Secretaría del Centro en el que estén matriculados para que, tras el abono de los precios públicos (tasas), sean incorporados a sus expedientes.

Gasteizen, 2027ko uztailaren 7an

En Vitoria-Gasteiz, a 7 de julio de 2027

72720453L IXONE FERNANDEZ DE LABASTIDA (R: Q4818001B)

Firmado digitalmente por 72720453L IXONE FERNANDEZ DE LABASTIDA (R: Q4818001B)
Fecha: 2026.07.08 13:29:48 +02'00'

**Ixone Fernández de Labastida Medina**
EHUko Arabako Campuseko errektoreordea
Vicerrectora de Campus de Álava de la EHU